



# ANAITASUNA

AÑO I — Núm. 8

Suplemento a la Hoja  
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Febrero 1954

## KRISTO EDO MAMMON

Igaro dan illean, Urtarrilleko amarretik ogetalaurarte, mixiñoak izan dira Arratian. Denpora orretan, arimako kontuak atonduten ibilli dira arratiarrak.

Aintxiñako fedea ez da galdu oraindiño errialde orretan. Orixe erakusten deuskue, Bilbon egun guztian lan eginda gero; gabeko eleizkizunera etorten zirean gizonak.

Baiña fedea galdu ez bada-bere, kilikolotu egin da asko aspaldion. Burruka gogor bat sortu da egunotan baseritarren arimetan. Bidekurtze baten bizi dira euskal lugiñak, batez-bere fabriketara lan egitera joaten direanak. Erlegiñoako gauzetan, aiko-maikoan eta ezmezean dabiz, nora jo ez dakiela. Alde baten Kristo, beste aldean Mammon. Eskumaldean Espiritualismoa, arinako gauzak; ezkerrekoan Materialismoa, lurreko ondasunak. Eta Arratian jazoten dana, Euskalerriko beste leku askotan-bere pasetan da.

Askok goizean goiz ixten dabe baserria, eta uri aundietako lantegietan bear egiten dabe egun guztian. Oraindiño kristiñau erlegiñoan ondo azi barik, or doaz Arratik tranbian ainbeste gazte Bilbora. Etxetik urrun, lan gogorraren alboan, gauza gozo asko topetan dabe Nerbion ondoko errietan. Au ikusi, ori entzun: azkenean, uste barik, progresua dalakoan materialismoa sartzen jake biotzean,

Mammon egiten da euren arimen jabe.

Ori dala-ta, tertzio onean datoz mixiñoak. Oraintsu izan dira Arratian. Ille onetako amalauan asi dira Balmasedako eleizbarrutian. Ta urrengoak Mungia aldean izango dira.

Amabost egunean, arakatu egiten dogu gure siñesmena, ebatzi arimako ezbaiak, entzun Jainkoaren berbea.

«Ezin leikez iñok ugazaba bi serbidu — diñosku Jesukristok —. Edo bata gorrotatuko dau eta bestea maitate; edo batari erantzungo deutsa ta besteari jaramonik ez. Ezin zeinkeez serbidu batera Jainkoa ta Mammon. Billatu eizue lenengo Jainkoaren erreñua ta Berak eskatuten deutsuen santutasuna. Ori egiten badozue, berez etorriko jatzuez beste gauza guztiak.»

Kristo ta Mammon: orra or munduko ugazabak. Mammonek lurreko zoriona bakarrik aginduten deusku. Kristok, barriz, zerukoa ta lurrekoa. Mammonek opa deuskun atsegiña, lurrean amaituten da. Kristok eskin ten deuskuna, ostera, amaibakoa da.

Siñestu deiogun Kristori. Bera da gure ugazaba bakarra. Eten daiguzan Mammoneri lotuten gaituen kateak. Libre bizi gaitazan Kristoren askatasunaz. Ez daiguzan aztu mixiño denporan artu ditugun asmo onak.



# ARRATIAKO MIXINOAK

## DIREALA-TA

### BATEOKO SAKRAMENTUA

2.—Urezko Batea naitanaiezkoa da salbetako.

Egia ete da? Ala ez ete da? Zegaitik?

3.—Ezaguera persona batek bakarrik euki leike gurarizko Batea.

Egia ete da? Ala ez ete da?

Ume batek —ezaguera bakoak— artu leike urezko nai odolezko Batea.

Egia ete da? Ala ez ete da?

4.—Eriotzako arriskuan, urrean edo inguruan iñor ez dagoanean, norberak bateatu leike bere burua.

Bai? Ala ez?

5.—Kontu egin: Persona nagusi bat — zazpi urterik gorakoa — bateatuteko dago, baiña bere kontzentzian pekatu mortal bat topetan dau.

a) Bateatu baiño lenago konfessau egin bearko ete da?

Bai? Ala ez?

b) Edo maitasunezko damua — kontriziñozkoa — enkitea bearrekoa ete da?

Bai? Ala ez?

Bedian asi ta Ubiderarte  
Amabost egun luzean  
Mixiolariak ibili dira  
Arratiako ibarrean.  
Len-be Arratian fede sendoko  
Jainko zaleak zirean:  
Ikustekoak egongo dira  
Mixino santu ostein.

Mixinoetan artuten dira  
Sekulako erabagiak;  
Esaten dogu: Itxiko dodaz  
Pekaturako bideak.  
Gogapen oneek ibiliko dauz  
Arratiako erriak.  
Zorioneko litzakez danak,  
Oneek balira egiak.

Lapikotxoa txingar artean  
Pilpilka dagoanean,  
Barruko gauza guztiak dabiz  
Gozoz egosi naiean.  
Baina otzifuten ixten bajako  
Nagikeriaz sasoian,  
Sustantzi bako jateko otza  
Seguru dago etxean.

Gure arimen lapikotxoa  
Otzik geratu ez daiten,  
Sarritan joan bearra dogu  
Autortu eta jaunartzen.  
Mixinoetan egin dala-ta,  
Nagiaz badogu ixten,  
Sustantzi bako katolikuak  
Garala dogu autortzen.

Jakin dagigun herbak bakarrik  
Aizeak daroazala,  
Eta egipenak gizona nor dan  
Erakutsi oi dabela.  
Jarraitu daigun zeru bidean  
Euskaldun onak bezela,  
Esan dagien gaur-bere egizko  
Katolikuak garala.



**ZEANURI.**—Arrati osoan-lez, amabost eguneko mixinoak izan dira erri onetan. Andra Mariko parrokiari onetaraxe egin zirean: Lenengo astean emakumentzako. Goizean neskatalak, andra ezkonduak arratsaldean. Goizean meza santuaz asi, ta bederatzietatik amabietara. Meza birtartean kristinau ikasbidearen azalpena. Gero meditazinoa. Jarraian kurutzebidea. Ostein bigarren meditazinoa. 120 neskatala batuten zirean. Arratsaldean, ordu bietatik bostetara. Dana goizean-lez. Mezearen ordez errosario santua. 135 andra ezkondu etorten zirean. Bigarren astea gizonenezkoentzat. Goizean mutil gazteak. Meza ta abar neskatalentzako-lez. 75 inguru batuten zirean. Arratsaldean, ordu biterdietatik bostetara gizon ezkonduak. Errosario santua asi, ta enparaua mutilentzako-lez. 93 inguru izaten zirean. Gabaz, San Isidroko eleizan bearginentzat, zortziterdietan asi, ta ordu betean: kristinau ikasbidea ta meditazinoa. 156 inguru etorten zirean. Bigarren astean, San Isidron, 73 mutiko ta 81 neskato.

**Undurragan,** aste betean egin eben dana. Goizean neskatalak eta andra ezkonduak 70. Arratsaldean mutil gazte ta gizonak 70, umeak 50.


**Santiago, Ipinako** parrokiari-be, aste betean amaitu eben. Goizean neskatala ta ezkonduak 70. Arratsaldean gizonenezkoak 80, umeak 50.

**Andra Mariko** parrokiari bakarririk, amaierako domekan, 350 gizonenezkoak jaunartu eben.

**DIMA.**—Mixiño ederrak aurtengoak, Diman eta bere auzotegietan: Lamindano, Indusi, Artaun eta Oban. Jakinagarririk guztien artean gauza bi

bakarririk aitaturiko doguz. Bigarren asteko barikuan, penitentzizko kurutzebidea izan genduan. A bai gau zoragarria! Erri osoa batu zan. Lau mixinolariak berotu zituen gure biotzak euren berbaldi sutuakaz. Ikustekoak zirean mutil gazteak — kurutzeak lepoan — eta erri guztia kandelakaz. Bigarren domekan, Jesus Sakramentaduagazko prozezinoa izan zan. Azkenean, uriko plazan, erri guztiak Jesukristo gure Jaunari konsagrazinoa egin eutsan.

## KURUTZEGRAMA N.º 6



**Ezkerretik eskumaldera:** 1. Gernikan jaioriko futbolaria.—2. Lekadun garaua. Bustarriperako ganadua.—3. Lekadun garaua. Dolorrea.—4. Geiegi. Vokal letrea.—5. Konsonante letrea. Gaiztoa ez dana.—6. Ogi txikia. Usain txarra (atzekoz aurrera).—7. Eleizan kantetako lekua. Domau.—8. Peste. Konsonante letrea.

**Goitik beera:** 1. Ibilteko lekua.—2. Animal askok buruan dauke (atzekoz aurrera). Alegantzia.—3. Mendien arteko lurraldea. Numerua.—4. Abisua. Gizon guztien bizilekua.—5. Konsonante letrea. Konsonante letrea.—6. Arratiko erria. Numerua.—7. Urbidea. Bero ez dana.—8. Prononbre personala (atzekoz aurrera). Ebangelioan agertzen dan alargun baten erria.

**AZALPENA.** Ezkerretik eskumaldera.—1. Iriondo.—2. Baba. Idi.—3. Idar. Min.—4. Lar. A.—5. T. On.—6. Opl. Als.—7. Korn. Fzi.—8. Izurri. M. Goitik beera: 1. Ibilteko.—2. A. dar. Poz.—3. Ibar Iru.—4. Or. Lur.—5. N. R.—6. Dima. Sei.—7. Odi. Oiz.—8. Ni. Natim.



# Jakin ba...

1.—**Ez da egia.** Urezko Bateoa naitanaiezkoa da al danean. Ezin danean, beste modu bi dagoz salbetako: odololezko Bateoa ta gurarizko Bateoa. Oneek biok urezkoaren ordezkioak dira, baiña ez dira Sakramentuak.

3.—**Egiak dira kasu biak.** Bateoa gura izateko, zer dan jakin bear da. Ezaguera barik, ezin jakin. Jakin barik, ezin gura izan.

Ume bateri urezko zein odolezko Bateoak balio deutso: auxe irakasten deusku Eleizeak.

4.—**Ez.** Norberak ezin leike bateatu bere burua. Derrigorrean esan bear direan berbak — **Nik bateatzen zaitut Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean** — argiro adierazoten dabe, Bateoan, persona bi bear direala: **Nik bateatzen zaitut zeu...**

5.—a) **Ez.** Konfeseteak ez leusio balio izango. Lenen artu bear dan Sakramentua, Bateoa da. Au barik, besteak ez dabe balio.

b) **Ez.** Bateoa artzeko, kontriziñozko damua ez da bearrekoa. Naikoa da atriziñozkoa, edo bildurrezko damua. Damu onegaz Bateoa artzen dabenari, Sakramentuak bere

birtutez—**ex opere operato**—kendu-ko deutzaz, jatorrizko pekatuagaz batera, beste pekatu guztiak.

## Olgetan Benetan

Abade batek bere sakristaua Bilbora agindu eban intzentzutan. Bide guztian joan zan sakristaua—Intzentzua, intzentzua, intzentzua—esaten.

Bilbon sartukeran, gizon bat aurkitu eban, lepoa bete abarka saltzen ebillela.

—Mutillak, arek jaroak lepokada abarkeal

Au esan eban bitartean, lengo berbea aztu egin jakon, ta—Abarkea, abarkea, abarkea—esaten asi zan.

Sartu zan alango baten dendan.

—Zer bear dozu? —preguntau utoen.

—Abarkea—esan eutsan saltzailleari.

Ekarri eutsan bat.

—Au ez.

Aundiagoa gero.

—Au-bere ez.

Aundi ta txiki, dendako geienak erakutsi eutsazan. Ezetz ta ezetz ta ezetz.

—Zer gura dok ba? Zelangoa dok gura doan tresna ori?

—Abadeak erabilten dabe mezatan.

—Baiña zer?

—**Eutsi ta tati, eutsi ta tati** erabilten dabena.

Saltzailleak, igarri ezinda, geroenean asarrez esan eutsan:

—Ken adi ortik, intzentzu oril

—Orixe gura dot, oraintxe esan dozun berori.

---

## IRAKURRI "ANAITASUNA"

Zabaldu lagunen artean euskerazko eleizorri au

Eskabideak direziño onetara:

*P. Rector del Colegio Seráfico*

PP. Franciscanos

FORUA (Vizcaya)

---

Dirección responsable: R. P. Director de "ANAITASUNA" TOLOSA (Guipúzcoa)

---